



Testua eta marrazkiak: **JANOSCH**

Itzulpena: **AINHOA IRAZUSTABARRENA BARRIOLA**

Azal gogorrez koadernatua. 15x21,5 cm.

52 orrialde. Marrazkiak koloretan.

Hizkuntza hauetan eskuragarri:

- Euskaraz: "Zein polita den Panama!"  
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-646-2
- Gaztelaniaz: "¡Qué bonito es Panamá!"  
Libros para Soñar. ISBN 978-84-92608-09-6
- Galegoz: "Que bonito é Panamá!"  
Tras os montes. ISBN 978-84-8464-721-8
- Katalanera: "Oh! Que bonic és Panamá!"  
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-937469-6-4
- Portugesez: "Oh, que lindo que é o Panamá!"  
Livros para Sonhar. ISBN 978-989-8205-48-3

Salneurria: 15 €

## ZEIN POLITA DEN PANAMA!

**Baziren behin hartz txiki bat eta tigre txiki bat, ibaiertzean bizi zirenak.**

**Han, kea ateratzen den tokian, zuhaitz handiaren ondoan.**

**Txalupa bat ere bazuten...**



Hartza txikiaren eta tigre txikiaren bizitza zeharo aldatzen da ibaian behera kutxa bat agertzen denean, Panamatik datorrena eta banana usaina duena. Harrezkero, Panama haien ametsetako lurralde bihurtzen da, eta, hori dela eta, hara joateko bidaia luze bati ekitea erabakitzen dute. Lapiko gorri bat eta kanabera bat hartuta, eta jostailuzko tigre-ahate batez lagundurik, bideari ekingo diote. Bidaian zehar hainbat animalia ezagutuko dituzte: sagua, azeri zaharra, behia, belea, erbia eta trikua.

Janoschen lehenbiziko lanek garaiko testuinguru historikoarekin loturiko oinarri politikoa dute. *Zein polita den Panama!* bigarren aro baten hasierako mugarria da. Aro horretan, honakoa bezalako istorioak dakarzkigu, zeinetan gizatiarturiko animalien bidez adiskidetasunaren balioa goraiatzeko baita. Panama da tigrearen eta hartzaaren locus amoenus —toki ideala— partikularra, eta toki horren bila eginiko bidaia liluragarria lotuta dago heldutasun pertsonalarekin, eguneroko abenturarekin eta emozio berrien aurkikuntzarekin..

Marrazki alai eta koloretsuak, klasikoak eta lauak, haur-estilokoak dituen Janoschen kontakizun kuttun honi umorea dario, eta baikortasun eta xalotasun sentimendu-hondarra utziko digu. Ezusteko amaierak, berriz, pertsonaien itxaropena asebeteko du.

**JANOSCH** (Hindengurb, Alemania, 1931 —egun Zabrze, Polonia—)

Janosch de Horst Ecker-en ezizena da. Izen artistiko hori hartu zuen bere lehen editoreak bultzaturik. Haurtzaro zail baten ondotik, gazterik hasi zen

[soltxate@pamiela.com](mailto:soltxate@pamiela.com) | [comunicacion@kalandraka.com](mailto:comunicacion@kalandraka.com)



lanean, errementari eta sarrailari gisa. II. Mundu Gerraren ostean, bere familia Mendebaldeko Alemaniara joan zen, eta oihal-lantegi batean hasi zen lanean. 1953an Munichera joan zen, eta aldi batez Arte Ederretako Eskolan ikasi zuen. Gero artista independente gisa hasi zen lanean, eta 1960an bere ibilbide artistiko eta literarioari hasiera eman zion liburuak argitaratu zuen. 300 lanetik gora ditu, 1979an argitaratutako *Zein polita den Panama!* ipuinak eman zion nazioarteko ospea. 1980az gerotik Tenerifen bizi da, eta haurrentzako liburuak, narratiba, antzezlanak eta animazio-lanak idatzi eta irudiztatzen ditu. Osagai autobiografikoak dituen eleberriren bat ere idatzi du helduentzat, eta idazle esanguratsuen testuak ere irudiztatu ditu, hala nola Charles Bukowskirenak.

- **Gaia:** adiskidetasunaren balioari buruzko kontakizun kuttuna
- **Adin gomendatua:** 7 urtetik aurrera
- **Alderdi aipagarriak:** haur literaturako egungo klasikoa
- **Aplikazioak:** animalia gizatiartuak; natura; bidaia; *locus amoenus* kontzeptua (toki ideala)